

2015

gida

**Adinekoen
eta pentsiodunen
gizarte-baliabideen
gida**



Adinekoen eta pentsiodunen gizarte-baliabideen gida

AURKEZPENA	3
1. PENSIOAK	5
1.1 Ordaindutakoaren araberako pentsioa	
1.2 Alarguntza pentsioak	
1.3 Desgaitasun-pentsioa	
1.4 Ordaindutakoaren araberakoa ez den pentsioa	
1.5 Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezia	
2. PRESTAZIO EKONOMIKOAK	9
2.1 Diru-Sarrerak Bermatzeko errentak	
2.2 Larrialdiko Gizarte Laguntzak	
3. NORBERAREN AUTONOMIA ETA MENPEKOTASUNA	11
3.1 Menpekotasunaren eta Banakako Atentzio Egitasmoaren (BAE) balorazioa eta onarpena	
3.2 Telelaguntza	
3.3 Zerbitzuak	
3.3.1 Etxez Etxeko laguntza zerbitzuak	
3.3.2 Eguneko Zentroa	
3.4 MENPEKOTASUNARI AURRE EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK	
3.4.1 Zerbitzuari loturiko diru-laguntza	
3.4.2 Etxeko ingurunean zaintza diru-laguntzak	
3.4.3 Bana-banako laguntzari eman diru-laguntza	
3.4.4 Norberaren autonomia errazteko diru-laguntzak	
4. OSASUNA	14
4.1 Gorpil aulkiak	
4.2 Kopagoa	

5. OINARRIZKO HORNIDURAK	16
5.1 Gasa eta Elektrizitatea. Bonu-sozial Energetikoa.	
5.2 Telefonoaren ordainketa soziala	

AURKEZPENA

Azken urteotan gizarte-mailan atzerakada handia ematen ari da. PSOE-ren eta PP-ren gobernuek, Gasteizeko eta Iruñeko gobernuen laguntzaz, amaierarik gabeko hamai-ka murrizketak ekarri dizkigute; laneko erreformek, 52 urte baino zaharragoak diren sorospenei egin erasoek, pentsioak bere horretan irauteak, osasunarengatik berriro ordaindu beharrak, menpekotasun eta oinarrizko errentetan egin murrizketek zigor erantsia ekarri diote Hego Euskal Herriko pentsiodunok lotuak gauden sistema defizitarioari. Horrek behartu egiten gaitu sistema honek ezartzen dizkigun ondorio kaltegarriak nola leundu ditzakegun pentsatzera.

LAB Sindikatuaren Pentsiodunen arloak egiten duen ekintza sindikalean oinarrituz eta Gizarte-Baliabideen Gida honen bidez, informatu nahi ditugu, nahi izango luketen Adineko pertsona eta Pentsiodunak, esparruetan eta gai ezberdinetan dauzkagun bitartekoez. Egun eskuragarri dauzkagun baliabideez ari gara, baina hala ere, esan, hauek guztiz eznahikoak ditugula adineko eta pentsiodun askoren minimo duin eta txukunak bermatzeko. Hortaz, gida honen bidez informatu nahi izateaz gain, erakunde-eei gizarte eskubideak eta eskubide ekonomikoak eskatzen jarraitzearen beharraz kontzientziatu nahi ditugu adineko pertsona guztiak.

1. Pentsio sistemaren kudeaketak Euskal Herriko herritarren esku egon behar du. Gasteizko Jaurlaritzari eta Iruñeko Gobernuari eskatzen diegu Gizarte Segurantza bertan kudeatu ahal izatea erreklama dezatela, bertan sortzen diren baliabideez eta aberastasunaz bertan erabaki eta haiek kontrolatu ahal izan ditzagun.

2. Lanaren eta aberastasunaren banaketa. 60 urtetik aurrera erretiratu ahal izatea onartu.

3. Hileko 1000 eurotako gutxieneko pentsioa eskatzen dugu, adinakoek eta pentsiodunek oinarrizko premiak, duintasuna, elikadura, osasuna, etxebizitza, arropa-premiak... asebetu ditzaten. Espainiako estatuak behin eta berriz ez ditu betetzen gutxieneko diru-sarrereren Europako Gutun Sozialean agertzen diren irizpideak.

4. LAB sindikatuak irizten dio unibertsala, publikoa, doakoa, kalitatekoa eta euskalduna den Berezko Osasun Sistema eduki behar dugula eta gauzagarria dela.
5. Pertsona orori kalitatez zahartzeko eskubidea dagokio. Ohiko inguruuan autonomia pertsonal eta soziala sustatu eta bizitzan sortuko diren menpekotasun mailak konpent-satuko dituen, beti ere, Herri Administrazioaren kontura eta arreta pertsonalizatuaz.
6. Adineko pertsonak Gizarte-Laguntzako Zentroak erabili ahal izango dituzte, Egonaldi Iraunkorreko Egoitzak barne, ohiko etxebizitzaren esparruan, deskokapena eragozteko eta familia eta gizarte harremani eusteko.
7. Foru Aldundiek eta Udal handiek "adinekoen behatokiez" hornitu beharko dute. Hauetan, udal-izaerako berariazko politika ezartzeko beharrezkoak izango diren diagnostikoak egingo dira. Administrazio horretako arduradun politikoez, arlo horretan adituak diren Teknikariez eta adinekoen eta pentsiodunen erakundeetako ordezkariak osatuko dira. Adinekoek jasan ohi dituzten diskriminazioak azpimarratu-ko dira bereziki.
8. Udalek adinekoen bizi baldintzen hobekuntzan inplikatu behar dute: trabak deuseztatzeko, kultura eta jendarteko bizitza sustatzeko, partaidetzarako bideak eskaintzeko, ekonomikoki okerren daudenak zaintzeko (ur, zabor, garraio publikoan, kultur ekitaldietara joateko,... salbuespenak eta tarifa-sozialak).

1. PENTSIONAK

PENTSION HAUEK GUZTIAK GIZARTE SEGURANTZAREN ARRETA EMATEKO ETA INFORMATZEKO ZENTROETAN TRAMITATZEN DIRA.

1. 1 ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PENTSIONA.

GSINari eska diezaioke pentsioa ondorengo betekizunak beteko dituen pertsona orok:

- 67 urte bete duenak edota 65 urte beteta 38 urte eta erdiz kotizatu izan balu.
- Gutxienez 15 urte kotizatu baditu, azken biak erretiratzeko arauzko adina bete aurreko azken bi urtetan kotizatu badu.

Gutxieneko pentsioa Kotizatzeke Oinarri Arautzaileak zehazten du. Datozen urteetarako honela ezartzen da:

Urtea	Kotizatu diren hilabeteen kopurua / zatitzailea	Kotizatu diren urteak
2013	192 / 224	16
2014	204 / 238	17
2015	216 / 252	18
2016	228 / 266	19
2017	240 / 280	20
2018	252 / 294	21
2019	264 / 308	22
2020	276 / 322	23
2021	288 / 336	24
2022	300 / 350	25

%100eko pentsioa eskuratu ahal izateko, ondoren adierazten diren urteak kotizatu behar izango dira:

Abiatze urtea	Kotizatu urteak	%
2013-2019	35,5	100
2020-2022	36	100
2023-2026	36,5	100
2027. urteaz geroztik	37	100

1.2 ALARGUNTZA PENTSIOAK

Hildakoarekin ezkon-lotura izan duenari (bananduak eta dibortziatuak barne) edo haren izatezko bikotea izan denari ematen zaion prestazio ekonomikoaz ari gara.

Zenbatekoa hildakoaren oinarri arautzaileari dagokion %52ko portzentajea aplikatuz kalkulatzen da.

1.3 DESGAITASUN-PENTSIOA

Hainbat ezintasun-maila daude: Ezintasun partziala (ohiko lanbidearen funtsezko zereginak betetzea eragozten ez duten %33a baino txikiagoak ez diren ezintasunak), Osoa (lanbidearen betekizunak edo haren oinarriko betekizun guztiak betetzeko ezgaitzen duena, beti ere, beste zereginen bat bete baleza), Erabatekoa (edozein lanbide edo ogibide betetzeko erabat ezgaitzen du), Baliaezintasun Handia (ezintasun iraunkorra emateko, bizitzaren jarduerarik funtsezkoenak bete ahal izateko beste norbaiten laguntza izan behar du).

Kopuruei dagokienez, Partziala, Osoa (oinarri arautzailearen %55a, eta %75a 55 urte bete ondoren), Erabatekoa (oinarri arautzailearen %100a), Desgaitasun Handia (oinarri arautzailearen %100 gehi osagarri bat).

1. 4 ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKOA EZ DEN PENTSIOA

Kotizatu ez izanagatik, edota ordaindutakoaren arabera pentsioa jaso ahal izateko behar beste kotizatu ez izanagatik, jadanik erretiroa hartu dutenentzat edo ezintasun

eta premia egoeran daudenentzako prestazio ekonomikoa.

Pentsio hori eskuratzeko, urteko kopuruan, edukiko diren errentak edo diru-sarrerak urteko 5.136,60 € baino txikiagoak izan behar dute. Senideekin biziko balitz, errentek ondoren adierazten diren kopuru eta baldintzen azpitik izan behar dute:

	Bizilagun-kopurua	Euroak / urteko
Ezkontidearekin edo bigarren mailako senideekin bakarrik bizi bada	2	8.732,22
3	12.327,84	
4	15.923,46	
...	...	
Bizi den odoleko ahaideen artean haren gurasotako bat edo seme-alabak badaude tarteko	2	
3	30.819,60	
4	39.808,65	
....	...	

1. 5 GIZARTE SEGURANTZAREKIN HITZARMEN BEREZIA

Langile bati Gizarte Segurantzaren baja eman bazaio eta pentsiorako eskubidea izateko oraindik urte gutxi batzuk kotizatu behar baditu, gizarte segurantzarekin hitzarmen berezia sina dezake.

Gizarte Segurantzarekin nahita sinatzen den itunaz ari gara, ezintasun iraunkorreko, heriotzako eta biziraupenerako prestazioak jasotzeko eskubidea sortzeaz, haiei eustez edota areagotu ahal izateaz. Honelakoetan, langilea behartua legoke Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzera, haren erretiroa iritsitakoan, lan egindako urteak kontuan har dakizkion.

Oro har, hitzarmen bereziak sinatuko dituzte Gizarte Segurantzaren baja emango dutenek, azken urtean kobratzen zutenaren azpiko ordainsaria jasoz kontratatzen direnek

eta langabezia kobratzeari utziko diotenek. Hitzarmen hauek sina ditzakete, ezintasun partziala onartu zaien pentsiodunek eta pentsioa ukatu zaienek ere.

Hauentzat guztientzat, ezinbesteko baldintzatat joko da Gizarte Segurantzaren baja eman aurreko hamabi urteetan, 1.080 egunetan gutxienerako aldi batez kotizatu izana.

Dagokion pertsonak behin hitzarmena sinatu duenean, ondorengo kotizazio oinarrien artean aukeratu ahal izango du:

- Altan egon den laneko mailari dagokion kotizazio-taldearen gehieneko oinarria, beti ere, azken 5 urtean, 24 hilabetetan gutxienez, harengatik kotizatu izan balu.
- Azken 12 hilabeteetan kotizatu ohi denaren oinarria.
- Indarrean dagoen gutxienerako kotizazio-oinarria.

Kotizazio-oinarriari 0,94ko koefizientea ezarriko zaio.

Jarduera aldietan bertan behera geratuko da hitzarmen berezia. Iraungi egingo da, dagokion pertsona sartzen bada hitzarmena sinatu den Gizarte Segurantzaren erregimen berean. Erretiratuko edota ezintasun iraunkorreko egoera lortuko balu ere iraungiko da.

Arau orokorrek esan dezaketenez gain, badira hainbat hitzarmen berezi baldintza berezietarako diseinatuak, adibidez langileen hitzarmen berezia, non adinez txikiak direnek, ezinduek edo senideek zaintzeko lanaldia urritzen duten. Beste hitzarmen berezien artean ditugu: aldi batez kontratatutako langileena, 52 urte baino gehiago izanik langabezia-saria jasotzen duten langileena,...

2. PRESTAZIO EKONOMIKOAK

2.1 DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAK

- Hego Euskal Herrian bi oinarrizko errenta mota daude: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta Gizarte-Barneratzearen Errenta (GBE) Nafarroan.

a) DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN

Laguntza hau euren oinarrizko premiak betetzeko behar beste baliabiderik ez daukatenek kobra dezakete.

Errenta hau eskuratu ahal izateko, bizikidetzaren unitatearen errentek edo diru-sarrerak ondoren adierazten diren kopuruak baino txikiagoak izan behar dute:

Baimendutako gehieneko diru-sarrerak

Bizikidetzako unitatearen pertsona kopurua	Orokorra gehieneko €/hileko	Pentsiodunak gehieneko €/hileko
1	662,51 €	752,85 €
2	850,72 €	941,06 €
3 edo gehiago	941,06 €	1.016,35 €

HAUEK ESKATZEKO LANBIDEREN BULEGOETARA JO BEHAR DA

b) GIZARTE-BARNERATZEAREN ERRENTA NAFARROAN

- Laguntza hau, familia-kargak izanik, 65 urte baino gehiago bete dituztenek kobra dezakete, beti ere, familia-unitatearen diru-sarrerak azken seihilabetekoan, hileko konputuan, pertsona horri egokituko litzaiokeen Gizarte-Barneratzearen Errentaren azpikoa balitz.

Egun, honako kopuruak kobratzen dira lehen 12 hilabeteetan:

Bizikidetzako unitatea	Gehieneko euroak hileko
1	LGSren %85a = 551
2	769,68 euro
3	833,82 euro

HAUEK ESKATZEKO NAFARROAKO UDALEN OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETARA JO BEHAR DA.

2.2 LARRIALDIKO GIZARTE-LAGUNTZAK

Laguntza hau oinarrizko gastuei aurre egiteko behar beste dirurik ez dagoenean eskura daiteke, adibidez, etxebizitzaren alokairuari, oinarrizko ekipamenduei, auzo-erkidegoaren gastu arruntei eta apartekoei, energia eta beste horniduren gastuei eta norberaren gastuei (betaurrekoak, audifonoak, haginlariak...) aurre egiteko.

HAUEK ESKATZEKO UDALEN OINARRIZKO ZERBITZU SOZIALETARA JO BEHAR DA.

3. NORBERAREN AUTONOMIA ETA MENPEKOTASUNA

3.1 MENPEKOTASUNAREN ETA BANAKAKO ARRETA EGITASMOAREN (BAE) BALORAZIOA ETA ONARPENA

Zerbitzu eta prestazio ekonomiko asko eskuragarri izateko, menpekotasunaren balorazioa izan behar da.

Balorazioa mailetan sailkatzen da: 0 maila (menpekota ez dena edota menpekotasun arriskuan dagoena) eta 1., 2. eta 3. mailetan (maila handiagoa izateak menpekotasun maila handiagoa dela adierazten du).

MENPEKOTASUN-BALORAZIOA UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATUKO DA, ETA ALDUNDIA/GOBERNU BAKOITZAK ETXEBIZITZAN BERTAN EGINGO DU.

3.2 TELELAGUNTZA

Telefonoari konektatzen zaion gailu xehe batez ari gara; haren bidez, eguneko 24 orduan, etengabeko arreta eskain daiteke. Oso erabilgarria suertatzen da larrialdi, estualdi, bakardade,... egoeretan.

Hau ezgaitasunen bat dutenentzat egina dago, menpekotasun arriskuan izanik 65 urte baino zaharragoak direnentzat eta bakarrik bizi diren 75 urte baino zaharragoak direnentzat.

UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATZEN DIRA

3. 3 ZERBITZUAK

3. 3.1 Etxez etxeko laguntza zerbitzuak

Higiene eta norberak bere burua zaintzeko jardueretan laguntza profesionala jasotzea ahalbidetzen du, euren kabuz jardun ez daitezkeen eta beste norbaiten laguntza behar duten pertsonak etzan eta jaiki daitezen, etxeko lanak egiteko,... Horrela ohiko bizitzan

zailtasunez moldatzen direnen bizi kalitatea hobetzen da, bizi diren etxetik joan behar ez dutelarik.

UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATZEN DIRA

3.3.2 Eguneko zentroa

Egunez, norberaren oinarrizko premiak, premia teraupetikoak, errehabilitazioa eta premia soziokulturalak atenditzen dituen establezimendu espezifiko batera joaten ahalbidetzen du.

UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATZEN DIRA

3.3.3 Egoitza laguntza

Egoitzetan ematen den zerbitzu batez ari gara, oinarrizko premiei, terapeutikoei, errehabilitazioari eta soziolaboralei, laguntza osoa emateko.

Zahar-etxeetan aldi batez sartzeko eskaera egiteko aukera dago ere, zaintzaileek atsedena egin ahal izan dezaten.

UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATZEN DIRA

3.4 MENPEKOTASUNARI AURRE EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

3.4.1 Zerbitzuari loturiko diru-laguntza

Zerbitzuari loturiko diru-laguntza, aldiro emango dena, onartuko da, arreta eta zaintzako zerbitzu publikoa edo itundua eskura ezin daitekeenean, onuradunaren menpekotasun gradu eta mailaren eta ekonomia gaitasunaren baitan.

UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATZEN DIRA

3.4.2 Etxeko ingurunean zaintza egiteko diru-laguntzak.

Menpekotasun maila handiko pertsonen autonomia-sustatzea du xede. Haren helburua bana-banakako kontratazioa laguntzea da, hainbat orduz, honela onuradunari hezkuntza eta lana eskuratu ahal izatea erraztuko zaio; haren oinarrizko zereginen gauzatzean biritza autonomoagoa erraztuko zaio.

UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATZEN DIRA

3.4.3 Bana-banako laguntzari eman diru-laguntza

Menpekotasun maila handiko pertsonen autonomia-sustatzea du xede. Haren helburua bana-banakako kontratazioa laguntzea da, hainbat orduz, honela onuradunari hezkuntza eta lana eskuratu ahal izatea erraztuko zaio; haren oinarrizko zereginen gauzatzean bititza autonomoagoa erraztuko zaio.

UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATZEN DIRA

3.4.4 Norberaren autonomia errazteko diru-laguntzak

Garbitasuna, bainatzea eta dutxatzea erraztu dezaketen osagarriak (bainuko aulkiak, txizontzia, komuneko eserlekuak, dutxa-kabinak,...) lortzeko laguntzak daude.

UDALEN OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ESKATZEN DIRA

4. OSASUNA

4.1 GURPIL AULKIAK

Gurpil aulkien eskaera, elektrikoena zein elektrikoak ez direnena, OSAKIDETZAREN edo OSASUNBIDEAREN Osasun Zentroetan egin behar da.

4.2 KOPAGOA


Berriro ordaindu beharra edo kopagoa Gasteizeko Jaurlaritzak eta Iruñeko Gobernuak ezarri digun neurri bidegabekoa da. Ez dute berriro ordaindu behar izango oinarritzko errenten jasotzaileek, pentsiodunek, kotizazio gabeko pentsionistek, langabezia-saria jasotzen ez duten langabetuek eta laneko istripuek eta gaixotasunek eragindako tratamenduengatik.

NAFARROAN:

- Urtean 18.000 € baino errenta txikiagoa jasotzen duten pentsiodunek botiken %10 ordainduko dute berriro, gehieneko muga, hileko 8,26 euro izanik.
- Urteko errenta 18.000 eta 100.000 euro bitartean duten pentsiodunek botiken %10a berrordainduko dute, gehieneko muga, hileko 18,59 euro izanik.
- Urteko errenta 100.000 euro baino handiagoa duten pentsiodunek %60a ordainduko dute, gehieneko muga, hileko 62 euro izanik.

Anbulatorioko botika-prestazioan 8, 18 edo 60 euro/hileko kopurua gaudituko dituzten pazienteek erantsiko duten kopuruen kitapena, aseguratuko den pertsona bakoitzari eta honen onuradunei ezar dakiekeen errenta mailaren arabera, behin hiru hilabeteak igaro ondoren ordainduko da, hots, hiruhilekoaren hurrengo hilean.

Itzuli behar izango den kopurua 7 eurotakoa edo handiagoa balitz, aipatu kopurua hurrengo itzultze aldian itzuliko denari gehituko zaio. Diru-sarrera pentsiodun tituludunak helbideratzen duen edota erabiltzaileak zehaztuko duen banku-kontuan egingo da.



Garrantzitsua da farmaziak eman tiketa eta pazientearen datuak agertzen diren errezetaren argibide eskuorria jasotzea (edo haren fotokopia), erreklamatu behar izango balitz.

ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN

Berrordainketa farmazian bertan ordainduko dute botika jasoko den une berean. Errenten arabera, 8,26 € arte ordainduko da (18.000 €/urteko baino gutxiago), 18,59 € arte (18.000 eta 100.000 €/urteko) edo 62 € hileko (100.000 €/urteko baino gehiago).

18.000 € baino gutxiago kobratzen dutenek osasun zentroetan eska ditzakete laguntzak farmaziako berrordainketa orekatzeko.

5. OINARRIZKO HORNIDURAK

Ez da bermatzen bizitza duina garatu ahal izateko ezinbestekoak diren oinarrizko hornidurak izateko eskubidea. Elektrizitatea, gasa,... bezalako hornidurak multinazional handien esku daude; hauen helburu bakarra negozioa egitea da, nahiz eta pobrezia-aren eta pertsonak gaizki bizitzearen bizkar egin.

5.1 GASA ETA ELEKTRIZITATEA. BONU-SOZIAL ENERGETIKOA.

Konpainiei eska liezaieke, ondoren adierazten diren baldintzak betetzen dituenak:

- Haren ohiko etxebizitzarako kontratatu duen potentzia 3kW baino txikiagoa duenak.
- 60 urte edo urte gehiago izatea eta honezkero iraungitako Zahartzaro eta Ezintasunaren Derrigorrezko Aseguruaren eta ordaindutakoaren araberakoa ez den erretiro edo desgaitasun pentsioen onuradun izatea.

5.2 TELEFONOAREN ORDAINKETA SOZIALA

Telefono konpainiek, errentaren araberako erreziboen alta-kuotak eta hileko kuotak murrizteko, ordainketa sozialak daukate. Telefonoari buruzko informazio gehiago, ondoren adierazten dugun interneteko helbidean daukazue:

<http://www.portabilidadmovilyfijo.com/2013/01/ayudas-personas-con-rentas-bajas.html>